

Ametsetan

JEXUXMARI ZALAKAIN



HERRI Batasunako parlamentariak Madrilera egin duten azken bidaia-
ren ondoren honoko hau
bota zuen Fernando Jau-
regi kazetari espainiarrak Tele-5 telebista ka-
teatik: «*Jon Idigoras Madrilera Parlamentuan
ikusten dudak bakoitzean, bere diskurtso abe-
rrantea alde batera, amets egiten dudala uste
dut, zeren hauxe bait da gu guztion ametsa,
denak batekin ikustea alegia: liberalak eta
sozialistak, eskuinekoak eta ezkerrekoak, sepa-
ratistak eta kristaudeмократak*». Eta zinez, ez
dago aitorten garbiagorik.

Sistema demokratikoaren azken xedea da
hori. Denak proiektu berbera lantzen, diferen-
tzia txiki batzu gora behera. Hori da pluralis-
moaren gailurra: sakoñean bat, nahiz eta for-
malki bariantez josiak. Estatua eta estatuaren
legeak onartzeko orduan, ametsetako sistema
demokratikoaren arabera ez dago diferentzia-
rik; hor denak dira bat: xuriak, beltzak eta ur-
dinduak. Estatuak —indarrean dagoen legete-
riaren bidez— denak egiten ditu bat.

Demokraziaren eskenatokian, denek joka
dezakete beren papera, edonork erakuts dezake
bere ekarpen berezia: *estatuaren aurka doa-
zenek barne*. Baita beti ere joku-eskenikoaren
barnean. Zer egin, baina, joku-arau horiek ba-
dira, hain zuzen, onartzen ez direnak? Zer egin
beste eskenatokian aritu nahi denean? Inde-
pendiente izan nahi denean, alegia? Alor juri-
diko-politiko propioa antolatu nahi denean?

Fernando Jauregik estatuaren ametsa aitortu
du garbi asko. Estatuak beste herri bat ukatzen
duenean, amets hori amets gaiztoa baino ez da.
Lokamutsa. Joku-eremu horretan arituz ez da-
go joku-arau propioa edukitzerik. «*Ez espai-
niar ez frantses da euskalduna*», bota du Idi-
gorasek. «*Autosufiziente ez garen bitartean
alferrik dugu autodeterminazio-eskubidea
errebindikatzeko ibiltzea*» arrapostu Joseba
Egibar Jeltzaleak. Eta nola debru izan gaitezke
autosufiziente, geure aukerak egiteko ahalme-
na ere ez dugunean? Espainia ez da autosufi-
ziente, Alemania ere ez, baina erabaki propioki
erabakitzen dute. Guk ez; gu, ametsetan gabil-
tza.

Change

IÑAKI URIA



ALDAKETA

garaia da. 'It's Time to
Change'. Horrelaxe en-
tzu diogu goizaldean
Ameriketako EEBBetako

lehendakariari. Berriari.

Aspertuxe dauzkagu honez gero irakurle
nahiz teleikusleak. Bush/Clinton hautaketa
prozesuak zurrumbiloaren moduan erakarri ditu
mundu osoko komunikabideak. Eta ez da gu-
txigorako.

Hainbesteko eragina izango al du gugan?
Adituek esan dute: Europari gehiago komeni
zitzaion Bush. Kezka sortarazten du gaiteak.
Eta demokraten historiak. Baina denbora eska-
tzen da azterketarako eta ez da aldaketa handi-
rik espero.

Erreleboaren alde egin dute apustu iparra-
merikarrek. Beraiek hautatu behar zuten lehen-
dakaria eta ezagutzen zuten zaharra. Berriaren-
gan jarri dute itxaropena. 'Ezagutzen dut Itxa-
ropena izeneko lekua' agindu die Clintonek.
Han jaio zen Bill. Baina milioika lagun dira
Estatu Batuetan itxaropenik amesten ere ez
daukatenak. Ez dute botorik ematen.

Urrutitik ikusita, Bush eta Clintonen artean
pepsi-cola eta coca-colaren artean izan daite-
keen aldea baino handiagorik ez dela zioen atzo
komentarista batek. Eta cola edaleak badaki
aldea dagoela, nahiz eta biak cola izan.

Clintonek 'gizarte berria' aldarrikatzera-
koan, etxean daukan panorama ikusita, erre-
tolika kutsua darie bere hitzei.

Erreleboak ekarriko ditu aldaketak. Baina...
Aldaketa?

Euskaldunok ikasia dugu Cambio hitzaren
esanahia. Ez da oso ezberdina izango Change
delakoarena.

● Diario 16

Lanetik botatzea
eta langabezia

Lan merkatuaren zurrun-
tasun ugariak eta langa-
beentzako babesa zabal-
tzeak Espainiako lan pano-
rama itxuratu egiten dute,
eta, horretara, estatu hau bi
gauza aldi berean elkartu
beharrean aurkitzen da, alde
babetik oso tasa handiko
hazkundeari eustea —80ko
hamarkadaren bigarren er-
dialdean gertatu zen lege—
eta, bestetik, Europar al-
tuenetakoa diren langabe-
zia tasak izatea.

Paradoxa harrigarria:
merkatuan esku hartzen da
langabezia ebitatzeko eta
azkenean, ordea, langabezia
handitu egiten da.

Horrek esan nahi al du ka-
leratze libre eta dohainekoa
aldarrikatu behar dela, zen-
bait ekonomi agintariak
nahiago omen duten mo-
duan? Ez. Inola ere ez. Baina
horrek ez du aitzaki gisa ba-
lio behar izan, era berean,
ezer ere ez egiteko.

Egun hauetan hainbat
politikari eta sindikalistak
egindako adierazpenek be-

HEMEROTEKA

TASIO



TASIO / EGIN

rekin batera datu hau eraman
behar dute: Praktikan, ba-
nan-banako kaleratzea bi bi-
der garestiagoa —eta kolek-
tiboak lau bider— da Espaini-
an Europar baino. Espainia-
ko egungo egoeraren eta ka-
leratze libre eta dohainekoa-
ren artean, ez bairrik gabe,
tarte handia dago. Ez da
ahaztu behar, agian bada-
goela loturaren bat Espai-
nian kaleratzeak dakarren
kostu handia eta gure langa-
been «armadaren» artean.

EDITORIALA

● EL CORREO ESPAÑOL

Hezkuntza eta
boterea

Ikastolen Elkartek, edo
horietako gehienek, ez omen
dute oraino erabaki formula

publikoa edo pribatuaren al-
de daudenentz, bestelakoa
baita beren planteamendua.
Sare autonomoa izan nahi
dute, beste bi sareetatik be-
reizia kasu batzuetan arrazoi
ideologikoengatik eta bes-
tetan arrazoi sozioekonomi-
koengatik pluraltasuna
onartzea beste erremediorik
ez duten artean; (...).

Begibistakoa da sare pu-
blikoari buruz duten erreze-
loa. Bateko, gizarte arra-
zoiengatik, ezaguna baita
eskola publikoan nagusi den
gizarte ingurunea eta ez da
hori bere ikasleentzat nahi
dutena. Besteko, politika
arrazoiak. Eskola publikoak
izendatzeko ikastoletako
buruzagi askok ez du termi-
no hori erabiltzen beren hiz-
kera pribatuan, baizik eta
ikastetxe estatal edo trans-
ferituak deitu ohi diete.

LUCIANO RINCON

ZUZENDARIARI

Arabako ikastola
transferituetan
'irakasle erdaldunak'

Gasteizko Hezkuntza Sailak, EAJ-
PSOE-EEren arteko Eskola Itun Politikoari
jarraiki, ez du asmorik irakaskuntza publi-
koa benetan euskalduntzeko eta gainera
irakaskuntza euskalduna den lekuetan, ira-
kasle erdaldunak sartuz, espainolizatu ere
egin nahi du.

Adibidea: Arabako Diputazioak tran-
feritutako ikastoletan, datorren 93-94 ikas-
turterako planifikazio egitasmoaren arabe-

ra, Hezkuntza Sailak elebazarreko irakasle
erdaldunak (P1 hizkuntz perfildunek, ale-
gia) sartu nahi dizkigute.

P.I. Barrutia Ikastolan, esaterako, 29 pla-
zatic 8 dagozkie irakasle erdaldunei edo
Plekoei (4 Hasiera eta Erdiko Zikloan, 2
Hizkuntz Modernoan eta 2 Natur Zientzie-
tan). Ikastola hau B eredukoa da; halaber, D
eredukoetan ere, Hizkuntz Modernoari da-
gokion plaza erdarazkoa edo P1ekoa da.

Hau ikusirik, eta publikatzeko diren
ikastolek irakaspede gisa izan dezaten, hona
hemen gure gomendioak:

1. Irakasleek, gurasoek, ikasleek... Ad-
ministratzaileen planifikazio honen aurka
mobilizatu behar dugu gure ikastoletan

orain arte bezala irakaslego osoa euskaldu-
na izatea exigituz.

2. D ereduko ikastetxeak D ereduko
bihurtzea, irakaslego erdaldunaren sar-
tzearen arriskua saihesteko nolabait.

3. Eraso hauen aurrean (hizkuntz perfi-
lak...) irakasle euskaldunok gure lanpos-
tuak defendatu eta antolatu beharra dauka-
gu, Administrazioak B eta D ereduko eus-
karazko plaketan irakasle erdaldunak bir-
koka ez ditzan.

MARIAN AMOZARRAIN

ANA ISABEL ARRIETA

Gasteiz

GAIA JARRITA



Bill Clinton

Etxe Zuriak aldaketari
nonbait jada dio ekin;
aspertu egin da George Bushen andre
eta seme-alabekin,
Irangateren asunto eta
Golkoko kontuarekin.
Osaba Samek agur dirautse
irrifar zabal batekin,
beste berrero bat jarri bait du
lehengo aizkora berarekin.

UNAI ITURRIAGA

Egunkaria

Batzarde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

Administratzaio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDEKontseilu Editorialeko Zuzendaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: IÑAKI URIA

Zuzendariordea: LUZIEN ETXEHARRETA

Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02

Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso

Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 /

Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) /

31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo /

☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila,

/ 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11